



320/2019 EBAZPENA, maiatzaren 31koa, Goierri-Urola Garaiko Erakunde Sanitario Integratuko zuzendari gerentearena, Alazne EZKURRA LOYOLA jaunari/andeari Goierri-Urola Garaiko Erakunde Sanitario Integratuan Azkoitiko Lehen Mailako Arretako Unitateburu lanpostuaren funtzioak esleitzeko dena.

181/2019 Ebazpenaren bitartez, onartu egin zen Goierri-Urola Garaiko ESI-n Azkoitiko Lehen Mailako Arretako Unitateburua izendatzeko deialdi publikoa.

Balorazio batzordeak aurkeztutako eskabideak baloratu ditu, eta dagokion izendapen-proposamena egin du. Horiek horrela, eta Alazne EZKURRA LOYOLA jaunak/andreak dituen ezagutza akademiko eta profesionalak kontuan hartuta, zera erabaki da: Goierri-Urola Garaiko ESI-n Azkoitiko Lehen Mailako Arretako Unitateburu lanpostuari dagokion funtzioak esleitzea pertsona horri.

Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzko ekainaren 26ko 8/1997 Legeko 28. artikuluko hirugarren arau komunean, Osakidetzaren lanpostu funtzionalak arautzen dituen uztailaren 19ko 186/2005 Dekretuan eta azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuan ezartzen denarekin bat, zera

EBATZI DUT

Lehena.- Alazne EZKURRA LOYOLA jaunari/andeari esleitzea Goierri-Urola Garaiko ESI-n Azkoitiko Lehen Mailako Arretako Unitateburu lanpostuari dagozkion funtzioak.

Bigarrena.- Alazne EZKURRA LOYOLA jaunak/andreak kudeaketa- eta asistentzia-lanak egingo ditu, zuzenean eta hierarkikoki osasun-eskualdeko gerenteararen ardurapean. Bai Lehen Mailako Atentzioko unitateburu funtzioak garatu bitartean bai hauek amaitzean, titulartasunari eutsiko dio bere kategorian dagokion plazan, eta hari lotutako oinarrizko funtzioak betetzen jarraituko du.

Hirugarrena.- Esleipen honek ez dakar, inola ere, Lehen Mailako Atentzioko unitateburuaren funtzioak edo ordainsariak finkatzerik, berariazko lanpostu gisa; izan ere, noiznahi erabaki ahal da funtzio horien esleipenari amaiera ematea.


Laugarrena.- Interesdunak, funtzio horiek betetzen dituen bitartean, ardura bereziko osagarria kobratuko du. Osagarri hori 3/1987 Errege Dekretu Legeak arautzen duen berariazko osagarrian txertatuko da, eta bere zenbatekoa eta ezaugarriak uztailaren 23ko 195/1996 Dekretuaren I. eranskinean ezarrita daude

Bosgarrena.- Izendapen honi dagokionez, ondorioetarako data hau izango da: 2019ko ekainaren 1ean.

Seigarrena.- Ebazpen hau interesdunari jakinaraztea.

Zazpigarrena.- Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, ebazpen honi dagokion iragarkia EHAA-n argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Zumarragan, 2019ko maiatzaren 31an.

 **Osakidetza**
GERENTZIA
GERENCIA
O.S.I. GOIERRI-ALTO UROLA
GOIERRI-UROLA GARAICO E.S.I.
Goierra-Laura AGUIRRE ALBERDI
GOIERRI-UROLA GARAICO ESIKO ZUZENDARI GERENTEA